

- **Entzutekuak:** Victor Arrizabalaga artistari elkarrizketa
- **Kultura:** Santa Ageda Eguneko argazki eta koplak

soraluzeko
hamabostekaria **215.** alea
2010eko otsailaren 12an

@ pil-pilean

JUAN JOSE ARRIETA, EKONOMILARIA:
**“Euskal Herria Espainia baino
lehen irtengo da krisitik”**

2010

ARATUSTEAK

Soraluze

OTSAILAK 13, ZAPATUA

Goizeko 12:50etan, herriko kaleetan zehar.

TRIKITILARI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA

Musika Eskolako trikitilari taldearekin.

Arra tsaldoko 5,50ean.

Zubi Nagusi tik ur banda.

MOZORROEN DESFILEA.

Txaranga, Ba buhada, animazioa...

Arra tsaldoko 6,50ean, Plaza Zaharrean.

ARATOSTEETAKO DANTZEN ERAKUSTALDIA.

'Urre ts' dan tza taldearekin.

Arra tsaldoko 7etan, Plaza Zaharrean.

TXORIZO ETA SAGARDO DASTAKETA.

Arra tsaldoko 7etan tik 8,500 tara, Plaza Zaharrean.

DANTZALDIA, 'Akerpatz' taldearekin.

Gauko 10,500 ta tik 120 tara, Plaza Zaharrean.

DANTZALDIA, 'Akerpatz' taldearekin.

OTSAILAK 16, MARTITZENA

Arra tsaldoko 5,50ean, Herrin Antzokian.

HAURRENTZAKO PLAY BACK LEHIAKETA.

Haur Hezkun tzaiko e ta Lehen Hezkun tzaiko daskleen tza t.

Arra tsaldoko 6,50ean, Plaza Zaharrean.

TXOKOLATADA.

Arra tsaldoko 6:50etatik 8:50etara, Plaza Zaharrean.

DANTZALDIA, 'Lasker' taldearen esku tik.

Gauko 10,500 tik 12:50etara, Plaza Zaharrean.

DANTZALDIA, 'Lasker' taldearen esku tik.

Gauko 11etan, Plaza Zaharrean.


HELDUENTZAKO PLAY BACK LEHIAKETA.

DBIko daskleen tza t e ta helduagoen tza t.



**AINARA OSORO****LOREA DE CASTRO**

Batzuetan ordularixak itto egitten nau. Beste batzuetan, atzeratuta dabilela pentsatzen dot. Denboria arrarua da.

Norbaittek asmatu zittuan egutegixa eta ordua eta oin ixa mundu guztian erabiltzen diran neurrixak dira. Baina hala ta be, norberak harekiko daukan sentimendua oso erlatibua da, batzutan astiak hila-betiak dira eta bestetan, orduak. Gehixen kezkatzen nauena, gure bizimoduak hartu daben erritmo frenetikua da. Egun baten mila gauza egin bihar dittugu, bestela inproduktibo sentitzen gara. Gero eta gehixago, denboria saldu eta erosi egitten dan sentsaziñua daukat. “*Denboria urria da*”, denboria galtzia, dirua galtzia omen da, horregaittik, komunikaziñuak, ekoizpena, salmentak... azkartu egin bihar dira. Egun, gauzak ez datoz beren urtaruekin bat, errentagarrixago diranian baino, frutak, erropak... Guk abiadura horri men egin bihar dotsagu eta azkenian, barneratu be egin dogu. Zerbait atzeratu ezkerio pazientzia galtzen dogu. Eta dana zertarako? Hainbeste antxintxika ostian, gauza kuttunendako astirik ez daukagula konturatzeke. Orduan damuak datoz, eta iragana aldatu nahixa. Nere lelua: Momentu guztiak bizi, baina erritmua mantotu. Nik neuk, helmugara heltzeko prisarik ez daukat. 

“

Denboria saldu eta erosi egitten dan sentsaziñua daukat

Ainara Osoro

Hori pentsatuko zeban Abiadura HandikoTrenan asmatzailiak


Lorea de Castro

”

Halaxe da bai, Aina, denboriak ihes egitten dau. Espresino horrek nere instituto garaiko filosofia, latin eta grekera klasiak ekarri dostaz gogora. Nik uste dot Socratesen garaixan denboria XXI.mende zoro honetan baino polikixago pasatzen zala, oin ez dauka-gu-eta meditatzeke astirik!

Denboria ezin da erosi, baina salgai dago: zahartziakin batera datozen ximurak disimulatzeke kosmetikuetan, betirako gaztetasuna eskaintzen daben klinika estetikuetan,... gaur egun danak dauka prezio bat... denboriak be bai?

“*Denboria urria da*” dinozu. Hori pentsatuko zeban Abiadura Handiko Trenan asmatzailiak. Zelako mesede haundixa gizartian dako, “*jendiak minutu batzuk aurreztuko dittu! Urrezko minutuak!*”.

Hain zaharra dan gure herrixan, lurretik eta naturatik bizi izan diran baserritarrek pazientziaz begiratu izan dabe euren ingurura, urtaruak aldatzeke zain, lurra lantzeke momentua esperoz, frutak zuhaitzian bertan heltzen ikusiz. Zela demontre azalduko zotsazun zuk bizi guztia baserrixan, bere pazientzia danakin, lanian pasatu daben norbaitteri, ‘*urrezko minutuen trenak*’ bere eskuekin landutako lurak zeharkatuko dittuala eta bere arbasuek harriz harri sortutako etxia desagertu egingo dala? Ze nik ezin dot. 

Goguan hartzeke

“Kontu behatzekin!... Su horrek azkar egiten ditu lanak eta nekez sendatzen da horren errua.”

Manuela Ormaetxea



GUTUNAK

Memoria historikoaren aitzakiaz historiaren lapurreta

ALFA enpresa taldeko LAB sindikatuak gure lantegian banatutako koaderno batean, gai sindikalen artean, orrialde osoa erabiltzen du guztioi gogorarazteko Memoria Historikoa gorde behar dugula. Pasa diren 200 urte luze hauetan “herri hau” etengabeko borrokan dagoela, hasi XIX. mendean karlistaldietan, geroago 36ko gerran eta gaur egungo ETA “gatazka” beraren aktore direla. Jarraitzen du 36ko milizianoak omenaldia merezi dutela esanaz, batez ere gerra hasieran Donostiara abiatu ziren eibartarrak, han altxatutako militarren errendizioa lortu zutenak.

Iruditzen zait “plater” honen osagaiak elkarren artean uztartzea zaila dala, ezinezkoa esango nuke. Adarjotzea baino ez litzake izango baldin eta antzerako argudioak erabiliko ez balira inolako justifikaziorik ez daukana legitimatzeko.

Gure eta inguruko Historian zehar gertatutakoaren berri izateko kuriositate apur bat duenak badaki testu hori Eibarren idatzia izateak “delitua” handiagotu egiten duela. Zeren Memoria Historikoa gordetzen duen herri bat baldin badago aldamenean daukagun Eibarko hiria da. Eta Memoria horrek kontaktzen zaigun 200 urteko ipuina goitik behera gezurtatzen du.

Tortura ikustezina egiten da ikusi nahi ez duenarentzat!

Euskal herritarren kasuan atxilotetak irauten duen 3-4-5 egunen bitartean komisaldegietan ematen den inkomunikazioa sistematikoa da, kasu berriak ezagutzen ditugu astero-astero.

Pertsona bat atxilotzeko frogak baldin badituzte, edota atxilotuaren intentzioa deklaratzeko bada, zertarako inkomunikatzen dute? Zergatik ez dute zuzenean epailearen aurrera eramaten?

Zergatik ez zaie atxilotuei uzten beraien medikuak bisitatzen edota beraien abokatuekin hitz egiten? Jasaten ari diren tortura edota tratu txarrak ezkutatzeko. Zein beste arrazoi bestela?

Komunikabideetan behin eta berriz errepikatzen diguten bezala, tortura eta tratu txarren salaketak faltsuak badira, Zergatik ez dituzte kamerak jartzen komisaldegietan eta atxiloteta epealdi guztia grabatzen? Ez du esfortzu handirik suposatuko kalean kameraz josita gaudenean.

Gauza da XIX. mende hasieratik Eibar herri liberala zela, sasoi hartan izan ziren botazioetan ikusten denez. Bigarren karlistaldian milizia liberala sortu zuten “VOLUNTARIOS DE LA LIBERTAD” izenarekin karlisten aurka borrokatzeko. Milizianoen zerrendan plazentziatarrak ere agertzen dira. XX. mende hasieran liberalismotik sozialismora eboluzionatu zuten eta 1920 urterako partidu hegemonikoa zen sozialistena. Hortik dator 1931. urtean Errepublika proklamatzeko Espainian lehenengo lekua izatea. Eta 36an militarren aurka trenez eta kotxez Donostiara arrapaladan joan zirenak, (testuaren egile ezezagunak omen du nahi zituen milizianoak). Errepublika militar matxinatuengandik salbatzera joan ziren. Hor ere izan genituen plazentziatarrak.

Eta ai! orduko gertaeren eta orainaren loturak emaitza tristea eskaintzen du. Garai hartan dena eman zuten gizon eta emakume haien, gaur egungo kargu publikoren bat duten alderdikideak, eskol-tarekin bizi beharra dute. Heriotz zigorra ezarri diete.

XAVIER IÑURRIETA LABAIEN

Galdera hauek guztiek denok dakigun erantzun garbia dute. Nahiz eta zoritxarrez batzuk isildu eta beste batzuk txalotu, oraindik asko gara inpunitate osoz torturatzeko eta autoinkulpazioak lortzeko inkomunikatzen dela konturatzen garenok. Nazioartean ere badakite eta horrela salatu dute Amnistia Internacional bezalako erakundeek eta ONUko ordezkariak.

Torturapean eraildako Joxe Arregi, Esteban Muruetagoiena, Mikel Zabalza, Gurutze Iantzi, Xabier Kalparsororen familiek eta azken 30 urteetan torturatuak izan diren eta tratu txarrak jasari dituzten beste 7.000 euskaldun, horien guztien testigantza eman diezagukete.

AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Arianne Unamuno, Egoitz Unamuno, Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Oier Ariznabarreta

Heldu euskerari!

Aurreko batian, afaltzen has-tera nindoiala telebistara begiratu eta India inguruan emakume bat hil zala ikusi neban, bertako hizkuntza zekixan azkenengo pertsonia ei zan. Horren ostian, bi astian behin hizkuntza bat galtzen dala komentatu zebe eta munduan hizkuntza asko izan arren, gero eta gutxiago geratzen dirala. Hori ikusitta, pentsatzen jarri, eta euskera zein egoeratan dagan ikusi neban. Egoera horretatik ondiok nahiko urrin egon arren, euskera eguneroko bizitzan erabiltzen daben hiztunen kopuruari begiratuta, Euskal Herriko zati txiki batek bakarrik hitz egitten dabela ikusiko genduke, eta gero eta gazte gutxiagok gainera. Horrekin esan nahi dotena da, gaztiongan daguala euskeran etorkizuna. Jende nagusixak edo etorkinek ez dabe hizkuntza aurrera aterako, hurrengo belaunaldixetan euskeraz hitz egin bihar dabezenek hitz egitten ez badabe. Eta amaitzeko esan biharra daukat euskalduntzen gaittuan gauza bakarrari alde egitten lagatzia tristia izango zala! Hori nahi al dogu? Euskeraz egin berba, me-rezi dau eta!

((ENTZUTEKUAK))

Victor Arrizabalaga, Pop-arte
lantzen daben artista durangarra

Urtarrilian "Solasean" deitzen dan zure eskultura jarri zebe herriko Plaza Barrixan. Zela sortu zan proiektua?

Alberto Ramirezek Plaza Barrixan eskultura bat ipintzia proposatu zotan eta neri lekua oso aproposa iruditu jatan, herri erdi-erdixan! Ezin gehixago eskatu... Eskulturianizenakgiza-harremannen premia azpimarratu nahi dau. Eta eskulturak berak be, esanahi hori dauka. Pertsonak bata bestian oinarritu bihar garala, komunika-ziñua lantzia ezinbestekua dala.

Otsailian berriz, Soraluzeko Oreka Art galerixan erakusketa bat inauguratu dozu.

Bai, helburua nere lana Soraluzeko herritar guztieri ikuspegi zabal batetik ezagutaraztia izan da. Erakusketan argi geratzen da bi ildo ezberdin lantzen dittudala: bata, arkitektura munduakin lotuta eta bestia eskultura figura-tibuakin.

Zegaittik aukeratu dozu estilo hori? Zerk erakartzen zaittu?

Estilua ez da aukeratzen, berak aukeratzen zaittu! Konturatu bare gauzak egitten hasten zara eta bapatian estilo horren barruan murgilduta zarela konturatzen zara. Dana dala, eskultoria izan baino lehen, margotziari ekin notsan, eta uste dot, hori neurri haundi batian nere artelanetan irudikatzen dala. Aitortu biharra daukat, Pop-art mugimenduak haize freskua, bizipoza eta umoria daukalako erakartzen nabela eta aldi berian, honek sentimendu danak sortzen dittu nere barrenian.



Arrizabalaga soldatze lanak egitten.

Euskal Herrixan Pop-art mugimenduak lekuri ba dauka?

Dudarik bare! Ez da korronte nagusixenatarikua baina horrek ez dau esan nahi garrantzia gutxiago daukanik.

Gehixen eragin dotsun artistia zein izan da?

Ez daukat maisu bakarra, hemengo artisten artian Oteiza eta Chillida aittatuko nitukez, baina Pop munduakin lotuta Ton Wesselman artista amerikarra da gehixen gustatzen jatana.

Artistak berezixak zariela dinue. Zer dinozu zuk?

Gizakixok berezixak gara eta jakina, artistok be bai. Nere ustez, bizitza beste ikuspuntu batetik ikusten dogu. Artista bakoitzak begirada ezberdina dauka eta horri esker mundua magiko eta poetiko bihurtzen da. ☞

"Begirada ezberdinekin mundua magiko eta poetiko bihurtzen da"



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluakErrekalde 21
20590 SORALUZET. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Diseinua eta Formena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Ertzaintzak bi lagun atxilotu zituen eguazten gauean

Eguazteneko iluntzeko 20:00ak aldean, Ertzaintzak Beñat Ezenarro eta Gorka Salaberria "Txakarra" soraluzetarrak atxilotu zituen. Bi gazteak Torturaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira antolatutako egitaraua zabalitzen ari ziren, megafonia ipintzen eta kartelak pegatzen, Olako zubian. Gauerdian askatu zituzten biak.


Gazteek azaldu dutenez, zubia zeharkatu zutenean Ertzainen bi patruila agertu zitzaizkien eta bidean gurutzatu ziren atzetik zetozen autoak bidean geraraziz. Segidan, bi soraluzetarrak atxilotu eta

Begarako komisaldegira eraman zituzten "kalumniak publizitatearekin" egotzita. Bietako baten autoa ere konfiskatu egin zuten.

Epaiketa datorren martitzenean

Gauerdiko 00:00etan askatu zituzten bi gazteak, autoa ordea, oraindik konfiskatuta daukate. Esan dutenez, atxiloketak iraun bitarteko "momentu batzuetan jarrera oldarkorra erakutsi zuten" ertzainek. Datorren martitzenean izango dute epaiketa, otsailak 16an, Eibarko epaitegian.

Zapatuan manifestazioa

Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, Torturaren Aurkako Nazioarteko Egunerako antolatutako egitarauarekin jarraituko du. Eguenean arratsaldeko 19:30ean torturak salatzen zituen bideo-emanaldia eskaini zuten eta antzerkia jarraian, Zinean. Zapatuan berriz, Torturaren Aurkako Nazioarteko egunean, "Torturari Stop" lelopean manifestazioa egingo da arratsaldeko 19:30ean, Plaza Barritik hasita. 

Egueneko antzerkiaren irudi bat.



M^a Angeles Zabalak irabazi zuen San Blas lehiaketa

III. San Blas opil lehiaketan M^a Angeles Zabalak irabazi zuen lehen saria eta 60 euro jaso zituen. Bigarren opilik onena, Maite Zabalarrena izan zen eta 40 euro jaso zituen. Hirugarren, 38 punturekin, Unai Rodríguez izan zen eta 20 euroko saria jaso zuen.



Parkinsonaren inguruan hitzaldia hilaren 26an



Deparkel, Debabarreneko Parkinson Elkarteak gaixotasun honen gainean hitzaldia antolatu du datorren hilaren 26an. Hitzaldia, parkinsonean aditua den Javier Ruiz neurologoak emango du, arratsaldeko 19:00etan kiroldelgiko erakustaretoan.

Autobus geltoki berria Olako Zubian

Hilaren 9tik autobus geltoki berri bat dago Olako zubian. Inguruko etxetako bizilagunek hala eskatuta, Euskotren autobus konpainiak geltoki berria ipini du bertan. Mendarora eta Eibarrera joateko autobusek soilik geratuko dira geltoki berrian.

Kutxak Mesedeetako Amaren Egoitza diruz lagundu du

Kutxako Gizarte Ekintzak 45.000 euroko dirulaguntza eskaini berri du Mesedeetako Amaren Egoitzako birmoldaketa osoa egiten laguntzeko. Horrela, egoitzak bere edukiera handitu du eta nagusientzako egoitzan sarbide eta osasun aldetik izaten diren premietara egokitu ditu instalazioak. 2006an ere Mesedeetako Amak, Kutxako diru laguntza jaso zuen. Orduan, suteen kontrako sistema instalatu eta igogailuak ipini zituzten.

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu

Kalebarren 29
Soraluze
T. 943 75 12 49



GILTZAK, S.L.
SARRAILAGINTZA

• Era guztietako sarraila eta segurtasun kutxen **salmenta** eta **mantenua**
• Segurtasun eta iheserako **instalakuntzak**
• Sarrailen **egokipenak**
• Era guztietako giltzen **kopiak**
• Trabatutako atek **askatzen** ditugu

8.00etatik 24.00ak
larrialdiko zerbitzuak
943 70 13 91

Arragueta 3
20600 EIBAR
GIPUZKOA
T. 943 70 13 91
F. 943 20 86 99
giltzak@giltzak.com
www.giltzak.com

Datorren astean hasiko dira Ezoziko futbol zelaiako lanak



Joan den martitzenean Zabaldur enpresako ordezkariak eta obrako arkitektoa Ezoziko futbol zelaiaren izan ziren Jose Luis Arizaga alkatearekin beharrezko neurketak egiten. Lanak datorren astean bertan hasita aurreikusi dute eta lau hilabete epean amaituko direla, ekaina aldean.

800.000 euroko aurrekontua
Lanen aurrekontua 800.000 eurokoa da, 400.000 Soraluzeko Udalak ipiniko ditu, 250.000 Aldundiak eta 150.000 Gipuzkoako Futbol Federazioak. Lan hauekin zelaiaren egoera kaskarra hobetu nahi da, belar artifiziala ipini, argiketa instalazio berria, ura eta aldagela modularrak ezarri.

Otsaileko KZguneko ordutegia

Aitor Madrid, Soraluzeko KZguneko arduradunak jakinarazi du, KZgunea otsailaren 11n, 18an eta 25ean zabalduko dela, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Hil honetan, 16 urte goragokoentzat ikastaro berriak antolatu dituzte: Twitter, Audacity eta Draw programen azalpenak. Gogoratu nahi du baita ere, bertan ONA txartela eskatu daitekeela. Horretarako, NAN eta Osasun Txartel eguneratuak eraman behar dira.

Soraluzek 435.564 euro jasoko ditu Espainiako Estatuaren diru-fondotik



Urtero moduan, aurten ere Espainiako Gobernuak diru laguntzak zuzenduko ditu Estatuko herrialdeetara. Aurten, 435.564 eurokoa izango da Soraluzek jasoko duen laguntza zenbatekoa. Diru hori, zazpi proiektu berri egiteko erabiliko da: Telekomunikazioetako azpiegituren proiektua (79.726,92 euro); Jubilatuen Etxea Zentro Soziala egokitzeko (4.458,78 euro); Basoen errehabilitazioa egiteko (9.844 euro); Udalaren jabetzako lokala gazteentzat egokitzeko (52.051 euro) eta Maisuen etxebizitzak eraberritzeko alokairu sozialean emateko (202.196 euro).


Kanpoko bi igogailuak egiteko 312.944,62 euro

Azken udalbatzarrean aldeko hamar boturekin, kanpoko bi igogailu publiko jartzeko lanak Goitu Eraikuntzak S.L.-ri esleipena onartu zuten. Lanen aurrekontua 312.944,62 eurokoa

da, B.E.Z. gehitua. Igogailuetako bat Gabolats kaletik (*Guipuzcoano paretik*) Saciako babes ofizialeko etxeetara iritsiko da. Bigarrena, Estaziñotik hilerri pareira. Etxaburueta eta Plaza Zaharra urbanizatzeko lanak berriz, Construcciones Fresneda S.L.-ri esleitzea onartu zuten, aldeko hamar boturekin, 309.159,62 euroko aurrekontuarekin.

Alkatearen 9.000 euroen zuzenketa

Bukatzeko, eskari eta galderen atalean, EAJk alkateari eskatu zion bere garaian komunikabideetan adierazitako 9.000 euroko zifra, ustez, kargu publikoek euren soldatak %10 jaitsiz aurretuko litzatekeena, zuzentzeko. Alkateak onartu zuen zifra hori ez dela zuzena eta errektifikatuko duela esan zuen.

Udal Gobernu Taldeak jakinarazi du 2010. urteko aurrekontuak eztabaidan daudela eta martxoan bozkatuko dituztela. 

Laster hasiko dira urbanizatzeko lanak.

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbeberria Txurrutxa
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

“Gizarte moduan defendidu biharreko balorieri uko egin dotsegu”

JUAN JOSE ARRIETA, ekonomilaria

Ekonomilaria eta txistularia. Txistuan doinura dantzarixak saltoka ipintzen badaki, baita ekonomian doinura munduak zela dantzatzen daben be. Aspaldixan herritarrok dantzatzen gaituan krisixan barrenak eta ondorixuak azaldu doskuz.

Zela dago ekonomia gurian?

Ondo daguala ezin leike esan. Momentu delikatua bizitzen gabiz. Espainia mailan baina Euskal Herrixa izan leike hain gaizki ez dagan lurraldia. Azkenengo urte honetan asko egin da bai lehiakortasun mailan, bai eraikuntzan. Bestetik, Espainiako ekonomiak eraikuntzakin euki daben besteko dependentziarik hemen ez da izan eta erorketa ekonomikua Espainian haundixagua izan da. Hemengo enpresak gauzak hobetzen kezkatu dira, teknologia barrixetan, berrikuntzan eta abar. Horrek ez dau esan nahi hemen ondo garenik, langabezia sufritzen gabiz.

Zenbat denbora pasatuko da krisixa gairiditu arte?

Krisitik etartzeko denboria pasatu biharko da, baina egixa da baita, Euskal Herriko enpresak zeoze lehenago hasiko dirala gairiditzen hobeto gertatu diralako eta esportaziñuak eta internalizaziñua gehixago egin dalako. Europa mailan, Alemania eta Frantzia moduko lurraldiak pixkat berpizten doiazan neurrixan, hamengo enpresak be hobekuntza hori igarriko dabe, Espainiako beste enpresak baino lehenago.

“Laguntzen truke, bankuak konpromiso zorrotzaguak euki biharko littukiez”

Zeinena da krisixa eta zela sortu da?

Kontuan izan bihar da krisixan sorreria nun izan dan, kapitalismuan muin-muinian; txispia finantza munduan hasi zan. Hori hola izanda, ekonomia erreala osatzen daben guztiari eragin dotsa, enpresa eta lurralde danneri. Konfiantza faltia egon da, konfiantza falta horrek kreditua murriztu dau, horrek eraikuntza hankaz gora laga dau, kreditudun jendia mailegu gehixago ezin lortuta geratu da, eraikuntzako promotoriak dirurik bare geratu dira eta horrek eka-

BIOGRAFIA

Juan Jose Arrieta (1955, Soraluze). Ekonomia ikasketak Deuston egin eta 1977xan MCC kooperatiban sartu zan. 1990ian egin zeban jauzi Caja Laboral-Euskadiko Kutxako zuzendaritzara eta lau bider segidan hautatu zeben kargu nagusirako. 16 urte luzez erantzukizun haundixa euki zeban, ixa 3000 pertsona erantzule nagusixa zan-eta. Gaur egun, Deustoko Unibertsitatan dihardu lanian, Bilbo eta Donostia artian. Gipuzkoako hiriburuan bizi da. CAF eta TALDE enpresetako aholkulari independente moduan be badihardu.

rrri dau, kataian moduan, ekonomia erreala jaustia. Arrazoa? Eskrupulo faltia eta gizarte moduan defendidu bihar dittugun balorieri uko egittia.

Herritarrok ulertzen dogu ekonomiak munduan daukan pisua?

Krisi horren ondorixuak danok sufritzen dittugu, batzuk gehixago bestiak gutxiago. Batez be jende gaztiak pisua erosi edo mailegu bat lortzeko sasoiari, lan prekarixua dagan lekuetan lana galdu dabenak igarri dabe. Ulertzen dogun zergaitixa? Ba seguru asko gero eta gehixago, ze hankasartze oso nabarmenak izan dira eta hori jendiak sentitzen dau.

Sistema ekonomikuan aldaketarik badator?

Oreka eta kontrola mantendu bihar zeben entidade erregulatzailiak ez dabe euren eginkizuna bihar zan moduan bete. Eta oin, nahi eta nahi ez, berriro dabiz kontzientziatzen euren papela ondo eta egoki betetzeko. Seguru asko horrek sektorian antolamendu berri bat suposatuko dau; momentu honetan aurrezki kutxa eta sukurtsal larregi dare munduan, entidadiak euren artian akordiuak lortu eta antolamendu berri bat egin biharko dabe.

Bankuak ziran lehenengo salbatu biharrekuak?

Hor ikusi bihar dana da banku bat jausiko baltz horrek sortuko leuken konfiantza krisixa. Ez da bankua mantentzen akzionista batzuek dirua hor daukelako. Gobernuak bankuak mantentzen dittue, bankuak "jausten" lagata sortuko lirakezen ondorixuak askoz be larrixaguak izango lirakelako. Finantza-sisteman sortu leiken konfiantza faltiak ez banku bat bakarrik, banan-banan jausiko lirakez danak. Ulertzen dot kritikia. Hala ta be, mantentzen diran modu berian, beste baldintza batzuk ipini biharko littukiez. Adibidez, zuzendaritzan soldatak mantendu edo diru horren truke beste kontrol batzuk ipini. Laguntzia nik ez dot geizki ikusten, baina laguntza horrekin batera beste konpromiso batzuk lortzia, baldintza askoz be zorrotzaguak izan beharko littukiez. Ezin leike onartu banku bat hainbeste dirukin laguntzia eta gero banku horretako zuzendarixak ez dakit zenbat diru irabazia.

Ze konpromisotaz diharduzu?

Esan nahi dot, dirua jaso bai baina gero diru hori ez doiala enpresa txikixengana edo bankuko afiliatuengana bueltan. Orduan, laguntza horrekin batera beste konpromiso batzuk emon biharko lirakez: enpresak finantzatu, familixak lagunduz... konpromiso batzuk enpresa eta familixekin. Hori ez dihardue ondo uztartzen.

HERRIRA BEGIRA

Zenbat denbora herritik kanpo?

Ezkundu nintzanetik 26 urte izango dira. 3 urte Arrasaten bizi izan ginan. Geroztik Donostian bizi naiz emazia eta bi seme-alabekin.

Ze aldatu da Soraluzen?

Dana, sasoi bateko harremanak, kuadrillekin eta. Jendia gutxiago urtetzen da kalera eta sasoi bateko anbientia galdu egin da. Fisikoki oin ez dakizu herrira nundik sartu eta nundik urten.

Oroitzapenik?

Zubixa inauguratu zanian bi traineru egon ziran ibaixan. Orduan esaten zan aparkalekua zeukan munduko zubi bakarra Plazentziakua zala.

Zenbatian behin etortzen zara?

Txistua jotera Sta Agedan, Sta Zezilian eta Gaztañerretan etortzen naiz. Eta zoritxarrez ezagunen bat hiltzen bada. Hori ez da inoiz galdu bihar!

*“Europa ber-
piztu ahala,
hemengo
enpresak be
igarriko dabe”*



*“Pentsino siste-
ma pribatuakin
osatu bihako da
publikua”*



Behartsuak be gero eta gehixago dira. Erdi klasia desagertuko dala uste dozu?

Ez dot uste, ez. Askotan "aberats efektua" da pasatzen dana. Burtsia gora badoia, zuk 100 akziño badaukazuz, psikologikoki uste dozu diru gehixago daukazula. Eta gastatu be errezago gastatzen dozu dirua. Eta alderantziz. Hola, nahiz eta patrimonixo berdina izan, zela patrimonio horrek gutxiago balio daben merkatuan, gutxiago daukagula uste dogu eta gutxiago gastatu. Euki berdina daukazu, baina gutxiago balio dau. Baina hortik esatia, erdi mailako klasia desagertuko dala? Ez dot uste.

Biztanlerixian zahartzia dala eta, pentsinuak jasotzeko lan urtiak luzatzia biharrezkua da?

Seguru asko sistemian aldatu biharko da. Oin arte moduan Gizarte Segurantzian pentsino bakarra eukitzia ez da posible izango. Nere iritziz, sistema publikua sistema pribatuakin osatu biharko da, nahi eta nahi ez. Europa mailan be hori erabiltzen da.

Ezkerrean, Arrieta txistua jotzen azken Santa Ageda bezperan

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Azkenaldiko albistietako bat izan da Espainiako Gobernuak erretiro adina atzeratzeko asmua daukela, 65 urtetik 67ra. Herritarrengan zalaparta haundixa sortu dau notizia honek.


Ze irizten jatzu jubilaziño adina 67 urtera luzatzia?

IÑAKI SORALUZE
Errektifikadora



Nere ustez hori lartxo da, urte horretara helziaz oso luze joko dau. Lan 60 urterarte eginda nahikua eta sobran pentsatzen jata. Jubilatze adina dagan moduan lagako neuke nik, 65 urte nahikua da.

ERIK RODRIGUEZ
Kaldererua



Txarto! Ze esango do-tsut ba! Nere iritziz 60 urte arte lan egittia nahikua da. Eta bestela begiratu bankeruak zela egitten daben, 50 urtekin lana laga eta listo! Bizitzeko beste lan eginda!

M^a ANGELES ZABALA
Etxekoandria



Ez jata ondo irizten. Gainera lan bakoitza diferentia da. Politikuak esaterako, soldata ederra dauke. Nere gizona oster, 14 urtetik lanian eta ondion urte batzuk geratzen jakoz erretiratzeko. Gehixenez 65 urtian ipiniko neuke nik.

FELISA MARTIN
Jubilaua



Oso geizki. Gainera, honek aldaketok lan asko egin daben belaunaldixari egingo dotsa kalte eta horrek ez dare 67 urtekin jubilatze adina dago eta 60kin askoz hobeto.

GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81

MARI MAR HARATEGIA
Gurean Euskal Herriko produktuak!
Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze



EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
2009/ 2010

MATRIKULA LIBREA

Otsailaren 10etik
martxoaren 2ra

HIZKUNTZAK:

ALEMANA, EUSKARA,
FRANTSESA eta INGELESA

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute www.eoieuskadi.net orrian. Argibide gehiago: www.eoieibarheo.net orrian edo 943 20 0618 telefonoan.

Jardineta, 3
20600 Eibar

Santa Ageda Eguna bizi-bizi herrian

Santa Agedako argazkiak

Kulturaren Mahaia urteko kultur programazioa lantzen
 Kulturaren Mahaia otsailaren 18an egingo du hurrengo bilera. Bilera horretan 2010. urteko kultur programazioa landuko dute. Udalak ordurako prest izango du aurtengo herriko kultur ekintzen zerrenda eta bileran, zerrenda hori lan-mahaiko kideei helaraziko zaie bakoitzak bere ekarpenak egiteko. Bestalde, Udalak aurtengo kulturarako dituen ahalmen eta asmoen berri ere emango die batzordekideei.

Pop-artean oinarritzen den erakusketa Oreka Art aretoan
 Victor Arrizabalaga (Mañaria 1957) artistaren Pop-art artelanak Oreka Art aretoan (Gabolats kalea, 28) ikus daitezke otsailaren 14ra arte. Victorrek pinturak eta eskulturak modu koloretsu eta berezian lantzeaz gain, collageak ere egiten ditu. Informazio gehiago, www.victorarrizabalaga.com webgunean.

Abesbatzen elkartrukea bueltan



Urtarrilaren 23an, AAACEMA Valentziako abesbatzak eta Ezoziko Ama Abesbatzak kontzertua eskaini zuten lehenengoz herriko zineman. Kontzertu hau elkartrukea izan da, 2008ko irailean herriko abesbatzak Valentzian abestu zuen eta. "Agur Jauna" kantuarekin itxi zuten kontzertua.

Ostegunean nola izan zen Santa Ageda bezpera baserririkan baserri gatzoz hamahiru lagun eskera



Tarte txiki bat hartu duzue aurten ere guretzako borondatea estimatzen da bihotzez eskerririkasko

Eneko Beretxinaga



Musika Eskolako piano-joleak Andoaingen

Pasa dan asteburuan "Andoaingo Piano Jaialdia" ospatu zen. Bertan Ignacio Aranak, Garazi Jauntsaratssek, Abigail Montserratek eta Alejandra Rodríguez zilarrezko domina lortu zuten. Javier Aranak eta Maialen Oregik berri, brontzezko domina.

ARRANO
 tabernia
 etorri eta gozatu giro euskalduna eta sanua

HNOS. BENITO ANAIK

 Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
 Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe
 T. eta F. 943 75 20 47
 Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

612 abonatu Kiroldegian

Otsailaren 5a bitartean 612 sorluzetarrek eman dute izena Arane kiroldegian egingo diren kirol jarduera berrietan. Haurren igeriketa ikastaro berriak izan du arrakastarik handiena eta momentuz, hauek izango dira aurrera egingo duten jarduerak eta beraien ordutegiak:

KIROLDEGIKO ORDUTEGIA	
AEROBIC:	Astelehen eta eguaztenetan 9:00etan
MULTIFITNES:	Martitzen eta eguaztenetan 9:15etan eta 18:15etan
PILATES:	Astelehen eta eguaztenetan 18:15etan eta 19:15etan
GAP-BOSU:	Astelehen eta eguaztenetan 19:15etan
KARATE:	Martitzen eta eguaztenetan 20:00etan
SALSA:	Barixakuetan 20:30ean
AQUAGYM:	Astelehen eta eguaztenetan 08:30ean eta astelehen eta eguaztenetan 14:30ean

Spinning gela txukuntzen

Gelako margotze lanak direla eta, spinning klaseak datorren hilean hasiko dira eta kiroldegiko arduradunak martxorako prest egotea aurreikusten du.

Oraindik ez dago guztiz itxita Arane kiroldegiko izen-ematea eta bertan abonatu nahi duenak, izen-emate orria bete behar du, nahiz eta lehendik abontua izan. Informazio gehiago, **943 75 2466** telefonoan (*Maria*).



EMAITZAK

PELOTA

Atxotegi – Bengoetxea 22
Azipiri – Albisu 21

Atxotegik Lezamako torneo irabazi du www.plaentxia.com

Olaizola II – Mendizabal 22
Gonzalez – Laskurain 9

FUTBOLA

Amaika Bat F.T – Sora (Erreg.) ... 2-0
Sora (Erreg.) – Aretxabaleta "B" ... 1-1
Sora (Jub.) – Urola K.E. 3-2
Urki C.D. – Sora (Jub.) 3-0
Elgoibar C.D. "B" – Sora (Kad.) ... 3-2
Sora (Kad.) – Eibartarrak 3-3

AGENDA

PELOTA

Gaur, otsailak 12, 22:00etan

Urretxuko Ederrena pilotalekuan
Gonzalez – Laskurain
Bengoetxea VI – Otxandorena

Otsailak 19, barixakua 20:00etan

Donibane Lohizuneko Maurice Ravel pilotalekuan

Olaizola I – Patxi Ruiz
Gonzalez – Laskurain

FUTBOLA

Zapatua 13, 12:00etan Estalan

Sora (Erreg.) – Urola K.E.

Soraluzeko XIII. Txirrindulari Saria hilaren 28an jokatu da



Iazko lasterketako irabazle guztiak.

Iturria: Mario Loscos

Soraluzeko Kirol Elkarteak, 23 urtetik beherako txirrindulari gazteentzat antolatzen duen lasterketa otsailaren 28an jokatu da. Lasterketa, goizeko 9:45etan hasiko da Estaziño kalean eta Eskoriatza, Mendaro, Angiozar, Asensio Goia eta Bergara igaro ostean, Soraluzeko San Andres auzoan amaituko da, 12:30ak inguruan. Antolatzaileek herritarrei egunean bertan jarriko diren trafikoko seinaleak errespetatzeko deia egin nahi diete. ☺

GILA TABERNA
GOIZKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



MENDIZABAL
okindegia
Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99
SORALUZE



MARE
ILEPAINDEGIA
**ESTETIKA
SOLARIUM**
Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



Merkatu Plaza
20590 Soraluze t. 943 75 24 40
egunerako arraina eta konjelatuak
Juan Mari arraindegia





ZORION AGURRAK



Unai Calles Agirre
Otsailaren 7an urtebete!
Zorionak potxolo!!
Jateko moduan zare eta!
Muxu handi-handi bat
etxekoan partez!



Diego Alexander Rizzo Molina
Otsailaren 5ean urtebete!
Muxu handi eta besarkada
bero bat guraso
eta amona Anaren partez!.



Maialen Alberdi
Otsailaren 21ean 14 urte!
Zorionak eta muxu handi
bat etxekoan partez!



Nora Saiz Guijarro
Otsailaren 14an 3 urte!
Zorionak gure azukre
koxkorri! Aitaxo eta
amatxoren partez!



Rosi Dueñas
Otsailaren 27an
44 urte! Zorionak!
Patxo handi bat
etxekoan partetik!



Imanol Agirre Arrillaga
Urtarrilaren 20an 6 urte!
Zorionak eta muxu handi bat
etxeko mutil handienantzat!



Janire Muñoz Pellitero
Martxoaren 8an 2 urte!
Muxu handi bat gurasoan
partez! Askok maitte
zaittugu maittia!



Lurdes Txurruka
Otsailaren 11n urteak betetzen
dituzulako... Zorionak maittia!!!
Eutsi gogor eta aupala Txorta!
Muxu erraldoi bat Soraluzetik!



Marta Ayora Plata
Otsailaren 15ean urteak betetzen
dituzulako... Zorionak politta!!
Aurten astelehena tokatu arren,
ondo ospatuko dugu!!



Nerea Alberdi
Otsailaren 24an 9 urte!
Zorionak eta muxu handi bat
zure lehengusinen partez!



Marina Gil Azcona.
Otsailaren 13an 7 urte.
Zorionak eta muxu handi
bat familiaren partetik!



Unai Larreategi
Otsailaren 15ian 31 urte beteko
dozuzelako Zorionak saltsero!
Segi lanian fin fin, muxu potolo
bat. Pii-pileaneko sendia



Lului!!
Otsailaren 11n!!
Zorionak gure partez eta
muxu potolo eta erraldoi
bat gure partez!!

hildakoak

M^a CRISTINA ALBERDI ACHOTEGUI
JESUS ARIZAGA OREGUI



LEHTAKETA

- Zein ageri da argazki honetan?



- Saria:

Sagardo botila bat eta idiazabal gazta erdia

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- **Irabazlea:**
Edurne Orbea
- **Suar Aizpuru,**
PCprest informatika dendako jabia da pasa dan aleko argazkixan agertzen dan soraluzetarra.



deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Pepe Cortijo

EZOZIRA IRTEERIA

Ezozin etaratako erretratu hau 1956. urtekua da. Argazkilarixa berriz, Pepe Cortijo izan zan. Uda partian, bazkarixa eta mantela hartu eta Ezozira irteeria egin zeban argazkiko gazte koadrila honek. Aurten, 54 urte beteko dira argazki hau etara zebenetik.

ARGAZKIXAN:

Goixan:

Joxean Arluziaga eta Jose Mari Iraola.

Behian:

Judith, Ruben Cortijo †, Maria Anjeles Cortijo, Jauri eta Espe Iraola. ☞



JESUS ARIZAGA OREGI

OTSAILAREN 6AN HIL ZEN

Familiak bihotzez eskertzen du egun hauetan jaso duen laguntza eta elkartasuna.

1- Etxebizitza

Salgai:

- Soraluzen, Errabal kalean etxea salgai. Hiru logela, bainugela, jangela, eta sukaldea. Berrituta dago eta bizitzera sartzeko moduan. 80 metro karratu.

- Gabolatx kalean etxea salgai. Bi logela ditu, sukaldea, jangela eta bainu gela. Oso argitsua eta bizitzeko moduan dago. Prezio oso ederra. 70 metro karratu

- Baltegieta kalean etxea salgai. Hiru logela ditu, jangela, sukaldea eta bainugela. Oso argitsua da eta bizitzera sartzeko moduan. Oso prezio interesgarria du. Deitu lasai eta galdetu.

- Zeleta auzoan etxea salgai. Bi logela, sukaldea eta bainugela ditu etxe honek. Gasdun berogailua de eta etxea berrituta dago. Bizitzera sartzeko prest dago. Eskaintza ona.

- Baltegieta 17.ean etxea salgai. Etxe honek hiru logela, sukaldea, bainugela eta despentsa ditu. Iggogailu berria dauka eta oso argitsua da. Oso prezio onean dago. Deitu eta galdetu.

- Serafin Atxotegi kalean etxea salgai. Etxe oso polita, hiru logela ditu, bainugela bat, sukaldea eta jangela. Etxe guztia berrituta dago eta altzariekin. Bizitzeko prest.

- Kalonje kaleko 4.ean etxea salgai. Etxe hau hiru logela, jangela, bainugela bat eta sukalde batek osatzen dute. Balkoi eder bat du eta oso argitsua da. Berehala bizitzera sartzeko aukera dago. Interesatuak deitu 649 759 078 mugikorrera (Ainhoa).

- Lau eta sei urte bitarteko aurrentzat arropa salgai. Berokiak, galtzak, oinetakoak eta beste hainbeste. Prenda guztiak euro bat eta hiru euro artean. Interesatuak, 649 318 385 telefonora deitu.

- Gipuzkoa Etorbidea 24-5B pisua salgai. Interesatuak 617 347 906 telefonora deitu.

Atal honetako iragarkiak doan dira.
Iragarki guztiak,
soraluze.iragarkilaburrak.com
helbidean daude eta baita,
www.plaentxia.com helbidean.
Kontaktuak bertan.

Iragarkiak jartzeko:
943 75 13 04 telefonoan
www.plaentxia.com
soraluze.iragarkilaburrak.com

- Etxebizitza salgai Gipuzkoa Etorbidean. Deitu 605744466 telefonora (Mariaje).

2- Lana:

- Larunbat goizetan garbiketa lanak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Telfs.: 666 815 008 - 679 878 676

- Modistak era guztietako konponketak egiten ditu Gabolatx kalea, 29, 1
Telefonoa, 666 815 008 / 679 878 676

- Ile-apaintzaile laguntzailea behar da. Harremanetarako: 943 75 2385 (Ezoz).

3- Garajeak:

- Garajea errentan. Interesatuak deitu 669 145 893 telefonora.

4- Denetarik:

Salgai:

- Bizikleta saltzen dut. Duela bost hilabete "*Puesta a punto*" eginda duena. Prezio oso interesgarria. 943 75 14 91.

Hartu:

- Ordenagailuko kañoia erosiko nuke. Interesatuak: 628 233 464

- 6.0, 6.1 luzerako surfeko ohola erosiko nuke. Olatuan maniobrak egiteko moduko ohola eta egoera onean dagoena. Telf: 655 721 190 eta emaila: tatxus@gmail.com. IKER

- Hirian ibiltzeko moduko bizikleta merkea erosiko nuke. Ez du inporta zaharra izateak. 100 euro ordainduko nituzke gehienez. Telf.: 655 721 190 eta emaila: tatxus@gmail.com IKER

- Guatemalara bidaltzeko ordenagailu eramangarri bat behar dut. Eskola xume bateko irakasle batentzat. Internetera konektatu daitekeena. Egoera onean dagoena.

Aratusteetan argazkiak ateratzeko asmoa duzu?

Bidali zuen erretratuak Pil-pilean aldizkarira
edo Plaentxia.com webgunera!

Horretarako...

aldizkaria@pilpilean.com edo

plaentxia@pilpilean.com

helbideetara mezu bat bidali!

...eta datorren alean, fin-fin argitaratuko ditugu !!!

Animatu eta erakutsi zure mozorroa !!!



SAGARDOTEGIRA irteera Pil-pileanekin!

- **Eguna:** Martxoak 6, zapatua
- **Ordua:** 12:30ean, Gila Zubitik
- **Prezioa** (bazkaria+autobusa):
36 euro / Bazkideentzat 31 euro
- **Txartelak erosteko:**
Iratxo goxodendan,
Arrano eta Gaztelupe tabernetan

